

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Zurgai aprobetxamenduen enkantea

2019ko uztailaren 5eko alkatearen ebazpenaren bidez, onespena eman zaio Eltziegoko Udalarena den zurgai aprobetxamendua besterentzeko lizitazio kontratuaren espedienteari. Prozedura irekiaren bidez eta esleitzeko irizpide bakarrarekin (enkantea) esleituko da jarraian zehazten den lote bakar hau:

Lote bakarra. Eltziegoko Udalaren jabetzakoa, "Tronconegro" dermioan, 7. poligonoa, 247. lurzatia, Guardiako jabetza erregistroan inskribatua, Eltziegoko 5853 finka, 895. liburukian, 48. liburuan, 197 orrian.

Aprobetxamendua honela moztuko da:

ESPEZIEA	ZUHAITZ ALEAK	BA (M ²)	PREZIOA EURO/M ²	PREZIOA
Makala	604	589,75	65	37.444,25 euro
Guztira	604	589,75	65	37.444,25 euro

1. Erakunde esleitzaila: Eltziegoko Udala.

Kontratuaren xedea: Eltziegoko Udalaren zurgai aprobetxamendua besterentzea.

Lizitazio oinarria: 37.444,25 euro, gehi BEZa.

2. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.

Izapidetzea: arrunta.

Prozedura: irekia, irizpide bakarrarekin.

Esleitzeko era: enkante publikoa.

3. Fidantzak: behin-behinekoa eta gehigarria.

Behin betikoa: esleipenaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

4. Ordaintzeko era: administrazio klausula berezien agirian adierazitakoa.

5. Epea: zuhaitzak 2019ko abenduaren 31 baino lehen moztu eta aterako dira.

6. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

7. Agiriak eta lizitazio baldintzen informazioa eskuratzea: Eltziegoko Udalean (plaza nagusia, 1 01340, Eltziego, Araba; telefonoa: 945 606520; posta elektronikoa: aeleciego@ayto.araba.eus), astelehenetik ostiralera, 09:30etik 14:30era, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera eta eskaintzak aurkezteko epearen amaiera arte.

Enkantea arautzen duten baldintza teknikoen agiria eta administrazio klausula berezien agiria kontratatzailearen profilean egongo dira eskuragarri: www.elciego.es.

8. Eskaintzak aurkeztea.

Eskaintzak aurkezteko lekua eta eguna: Eskaintzak, gutun azal itxian, Eltziegoko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, 09:30etik 14:30era, astelehenetik ostiralera, hamabost egun balioduneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera. Eskaintzak aurkezteko epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea izanez gero, epea hurrengo egun balioduneko 14:30era arte luzatuko da.

Proposamen eredu eta aurkeztu beharreko agiriak: lizitatuzaileek administrazio klausula berezien eta baldintza tekniko eta ekonomikoen agirian aurreikusten den eskaintza ereduaren arabera aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak, eta bertan adierazten diren agiriak erantsi beharko dituzte.

Eskaintzak irekitzea: udaletxearen bilkura aretoan, eskaintzak aurkezteko ezarritako epea bukatu eta hurrengo egun balioduneko (larunbata bada ez), 13:00etan.

Administrazio klausula berezien agirian ezarritako baldintzetan ezarritakoaren arabera, eskaintzak irekitzeko eguna aldatuko balitz, aldaketa hori Eltziegoko udalaren kontratatuzailearen profilean argitaratuko da (www.elciego.es).

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Eltziego, 2019ko uztailaren 5a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE